

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektuaren zati garrantzitsu bat gure ideiarekin bat etorriko zen enpresa bat aurkitzea zen, gurekin lankidetzan aritzeko eta bere helburua nagusia proiektu berritzaile batean parte hartzea da. Gainera, bere produktua eta gure ideia bikain konbinatzen dute, merkatuan produktu berri eta herdoilgaitza eratuz.

Plakak gure burutazioarekin konbinatzeaz gain, gure gailuak kargatzeko modu azkar bat bilatu behar genuen, eta enpresa asko konparatuz gero, "Litio Solar" ezin hobeto egokitzen zen gure eskakizunetara. Gainera, gure beste karga moduarekin bateragarriak izan behar zuten, garrantzitsua baitzen eguzki plaka eta indukzio plaka konbinatzea.

Kontuan hartu behar genuen beste puntu garrantzitsu bat dirua zen, gure bezeroentzat eskuragarria, eta, beraz, aurrez aurkeztutako baldintza guztiak betetzen zituen enpresa bat bilatzea "Litio Solar" da, eta harekin lan egiten dugu orain gure ideia gauzatu ahal izateko.

Proiektu hau martxan jartzeko, hainbat enpresa eta hornitzailearekin harremanetan jarri gara, eta zenbait bilera egin ondoren, aipatutako enpresa aukeratu dugu gure mugikorrek eramango dituzten eguzki-plakak egiteko. Valentzian eta Bilbon du egoitza, eta eguzki-energiarekin lotutako produktu ugari eskaintzen ditu. Eguzki-plaken, eguzki-kiten... hornitzaileak dira.

